




# Lekeitio





Uda hasierako egun eguzki-suei etekin osoa atera nahi izanez gero, Lekeitio bisitatzea da aukerarik onenetariko bat. Egun hauetan, portua inguratzen duten kale estuetan, herri arrantzale baten bizimodu lasaia eta aisialdi tokietako jendetza nahasten dira.

Lekeitio 1325. urtean fundatu zen eta Lea-Artibai eskualdean kokatuta dago, Bilbotik 55 km-tara. Itsasoak mugatzen du iparraldetik, Ispasterrek hego eta mendebaldetik eta Mendexak ekialdetik.

Lekeitio bisitatzerakoan Santa Maria elizara hurbiltzea ezinbestekoa da. XVI. mendean eraikitako eliza gotiko honek ikusmirra

sortarazten du, ataria eta beronen garapen ikonografikoa, gargolak, orratzak, eta abar direla eta.

Lekeitioko alde zaharretik paseatzea ere gustuko izango du bisitariak. Arrantzaleen auzoan, sasoi bateko bai herri-jaunen bai herri xehearen bizilekuan, hainbat dorre eta jauregi ageri dira, batzuk itxuragabetuak baina oraindik erakargarriak.

Atsedean hartzeko toki egokia da arrantzaleen auzoa. Izan ere, kaian hamaikatxo terraza aurkitzen dira eta, arrain pintxoak edota sagardoa dastatuz, portuko giro atseginarekin gozatzeko aukera ezin hobea eskaintzen dute.

Hondartza maite dutentzat ere Lekeitiok badu tokia. Urer-

tzean pasiatzea, itsaso lasaiean bainatzea, hare bigunean patxadaz egotea edo, itsasbehera dagoenean, Santa Katalina irlara txangoa egitea da Isuntza edo Karraspio hondartzetara hurbiltzen direnen ohiko zeregina. **F**

#### KAXARRANKA Y LOS GANSOS

Las dos festividades de Lekeitio, San Pedro, del 28 de Junio al 1 de Julio, y San Antolín, del 1 al 8 de Septiembre, son populares por su peculiar Kaxarranka, el dantzari baila sobre una gran caja de madera sostenida por ocho arrantzales, y el espectacular concurso de gansos, que se celebra desde el año 1666.